

Mugikorrak guk fabrikatu beharrea, telefono ekoizleei saltzearen aldeko hautua egin dugu, izan ere, askoz ere egokiagoa izango da, bai gure ideia jendartean zabaltzeko eta baita fabrikazio prozesua errazteko ere. Beraz, gure bezeroak mugikor enpresak izatea aurreikusten dugu. Gure proiektua pixkanaka enpresa handienetara zabaltzen joatea da gure helburua. Lehenik eta behin Sony, Wiko eta antzekoekin ahaleginduko gara eta gerora Apple, Samsung, Huawei markak ere gure ideia euren mugikorretan txertatzea izango da gure helburua.